

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. Hotelak izan ezik. 2022ko abendua

2022. urtean, Euskal AEko landetxeetako sarrera kopurua 2021ean baino % 36,3 handiagoa izan da, eta apartamentu turistikoetan, % 77,0 handiagoa

Atzerriko jatorriko ostatu-gauen kopuruan izan den urteko hazkundera % 190,8koa izan da landetxeetan, eta % 122,0koa, apartamentu turistikoetan

Euskal AEko **landetxeetan, 2022. urtean**, hobekuntza handia izan da okupazio-aldagaietan, 2021. urtearen aldean. 168.958 sarrera eta 434.037 ostatu-gau izan dira; beraz, urtean, % 36,3ko eta % 24,4ko hazkundera izan dira, hurrenez hurren, Eustaten datuen arabera.

Bizkaia izan da 2022an urteko hazkunderik handiena izan duen lurraldea, bai sarreraren kopuruan (% 51,2), bai ostatu-gauen kopuruan (% 32,2). Gipuzkoan, sarreretan, % 30,9ko igoera egon da eta, ostatu-gauetan, % 21,9koa. Araban, 2022an sarrerak eta ostatu-gauak aurreko urtean baino % 29,1 eta % 19,4 handiagoak izan dira, hurrenez hurren.

Atzerriko bisitariei dagokie Euskal AEko establezimendu-mota horretan joan den 2022. urtean izan diren sarrera guztien % 21,6; % 187,9 handitu da 2021arekin alderatuta.

Euskal AEko landa-ostatu-etako sarrerak, ostatu-gauak, batez besteko egonaldia eta okupazio-mailak. 2022

	Sarrerak		Gaualdiak		Batez-besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)			
							plazen arabera		gelaka	
	2022	p/p-1 (%)	2022	p/p-1 (%)	2022	2021	2022	p.p. *	2022	p.p. *
EUSKAL AE	168.958	36,3	434.037	24,4	2,57	2,81	27,3	4,2	31,3	4,8
Estatukoak	132.523	19,1	345.355	8,5	2,61	2,86	-	-	-	-
Atzerriarrak	36.435	187,9	88.682	190,8	2,43	2,41	-	-	-	-
Araba/Álava	30.399	29,1	67.945	19,4	2,24	2,42	18,0	1,9	21,1	2,1
Estatukoak	26.590	20,7	59.053	9,8	2,22	2,44	-	-	-	-
Atzerriarrak	3.809	152,4	8.892	183,9	2,33	2,08	-	-	-	-
Bizkaia	53.320	51,2	130.995	32,2	2,46	2,81	28,5	5,5	32,3	5,9
Estatukoak	41.814	32,3	103.860	15,5	2,48	2,85	-	-	-	-
Atzerriarrak	11.506	214,8	27.135	197,3	2,36	2,50	-	-	-	-
Gipuzkoa	85.239	30,9	235.097	21,9	2,76	2,96	31,3	4,8	35,7	5,7
Estatukoak	64.119	11,2	182.442	4,5	2,85	3,03	-	-	-	-
Atzerriarrak	21.120	182,0	52.655	188,7	2,49	2,44	-	-	-	-

p.p.*= aurreko urteko hila bete berarekiko portzentajeiko puntuko aldea

Data 2023ko Urtarrilaren 24a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Euskal AEko landetxeen batez besteko egonaldia 2,57 egunekoa izan da 2022. urtean, eta, 2021ean, 2,81 egunekoa. Okupazio-maila, bestalde, % 27,3 igo da, plazen arabera neurtuta, eta % 31,3, gelen arabera neurtuta. Euskal AEko landetxeetan 2021ean izan ziren okupazio-mailekin alderatuta, ehuneko 4,2 eta 4,8 puntu areagotu dira, hurrenez hurren.

Euskal AEko **apartamentu turistiko**en 2022. urteko **balantze**an ere hobekuntza nabarmena izan da, 2021aren aldean. Guztira, 141.789 sarrera eta 536.084 ostatu-gau izan dira urte osoan, eta, 2021aren aldean, urteko gehikuntzak % 77,0koak eta % 49,2koak izan dira, hurrenez hurren.

Lurralde historikoei dagokienez, 2022an jasotako sarrerak eta ostatu-gauak, 2021ean jasotakoekin alderatuta, areagotu egin dira, baina beste intentsitate batez. Bizkaiko apartamentu turistikoetako sarrera guztiak bikoiztu egin dira, aurreko urtearen aldean; % 42,9 Gipuzkoan eta % 51,8 Araban. Ostatu-gauen kopuruaren hazkuntzari dagokionez, Bizkaian % 83,0, Gipuzkoan % 37,6 eta, azkenik, Araban % 21,0.

Atzeritarrei dagokie Euskal AEn joan den 2022. urtean establezimendu-mota horretan izan diren sarrera guztien % 32,7. Ehuneko hori 2021ean izan zen % 19,4a baino handiagoa da, azken urtean bidaiari-mota horrek % 198,2 egin baitu gora.

Sarrerak, gualdiak, batez besteko egonaldia eta okupazio graduak Euskal AEko apartamentu turistikoetan. 2022

	Sarrerak		Gualdiak		Batez-besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)			
	2022	p/p-1 (%)	2022	p/p-1 (%)	2022	2021	plazen arabera		apartamentuak	
							2022	p.p. *	2022	p.p. *
EUSKAL AE	141.789	77,0	536.084	49,2	3,78	4,48	36,0	7,9	62,9	11,4
Estatukoak	95.468	47,8	352.679	27,5	3,69	4,28	-	-	-	-
Atzeritarrak	46.322	198,2	183.404	122,0	3,96	5,32	-	-	-	-
Araba/Álava	14.243	51,8	94.270	21,0	6,62	8,31	24,3	1,4	66,2	8,2
Estatukoak	12.353	43,8	73.749	15,6	5,97	7,42	-	-	-	-
Atzeritarrak	1.890	139,3	20.521	45,2	10,86	17,90	-	-	-	-
Bizkaia	91.968	100,6	220.502	83,0	2,40	2,63	36,8	10,4	51,4	6,6
Estatukoak	60.642	65,8	137.434	46,4	2,27	2,57	-	-	-	-
Atzeritarrak	31.326	238,1	83.067	212,0	2,65	2,87	-	-	-	-
Gipuzkoa	35.578	42,9	221.312	37,6	6,22	6,46	44,0	10,6	70,8	18,1
Estatukoak	22.473	15,7	141.497	18,9	6,30	6,13	-	-	-	-
Atzeritarrak	13.105	139,2	79.816	90,8	6,09	7,64	-	-	-	-

p.p.*= aurreko urteko hila bate berarekiko portzentajezko puntuko aldea

Data 2023ko Urtarrilaren 24a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Okupazio-mailek, bai plazen arabera bai apartamentuen arabera, ehuneko 7,9 eta 11,4 puntuan gaintzen dituzte 2021ekoak; 2022an % 36,0koa eta % 62,9koa izan da, hurrenez hurren.

2022ko abendua

Euskal AEko **landetxeetan**, 2022ko abenduan, sarreraren igoera % 55,7koa izan da, aurreko urteko hil berarekin alderatuta, 13.094 guztira. Ostatu-gauak % 7,2 areagotu dira 2022ko abenduan, urte arteko terminoetan, eta 28.316 izan dira guztira.

Euskal AEko landa-ostatueta sarrerak, ostatu-gauak, batez besteko egonaldia eta okupazio-mailak. Abendua 2022

	Sarrerak		Gaualdiak		Batez-besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)			
							plazen arabera		gelaka	
	2022/12	m/m-12 (%)	2022/12	m/m-12 (%)	2022/12	2021/12	2022/12	p.p. *	2022/12	p.p. *
EUSKAL AE	13.094	55,7	28.316	7,2	2,16	3,14	22,1	1,7	26,2	2,4
Estatukoak	11.623	52,0	25.426	3,7	2,19	3,21	-	-	-	-
Atzeritarrak	1.471	93,6	2.890	53,2	1,96	2,48	-	-	-	-
Araba/Álava	3.256	51,1	6.762	27,1	2,08	2,47	21,3	4,6	23,2	4,6
Estatukoak	3.237	59,4	6.727	29,8	2,08	2,55	-	-	-	-
Atzeritarrak	19	-84,7	35	-74,8	1,84	1,12	-	-	-	-
Bizkaia	3.300	52,1	7.879	10,2	2,39	3,30	21,5	1,9	28,3	5,5
Estatukoak	3.110	48,7	7.265	3,7	2,34	3,35	-	-	-	-
Atzeritarrak	190	146,8	614	338,6	3,23	1,82	-	-	-	-
Gipuzkoa	6.538	60,0	13.675	-1,9	2,09	3,41	23,0	0,1	26,5	-0,5
Estatukoak	5.276	49,6	11.434	-7,3	2,17	3,50	-	-	-	-
Atzeritarrak	1.262	125,8	2.241	39,5	1,78	2,87	-	-	-	-

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabetearen izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2023ko Urtarrilaren 24a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistikoko Hartzaileren Inkesta

Atzerriko jatorria duten sarrerak guztizkoaren % 11,2 izan dira; 2021eko abenduaren aldean, % 93,6ko igoera izan da. Atzerriko jatorria duten ostatu-gauen kasuan, igoera, urte arteko terminoetan, 2022ko abenduan, % 53,2koa izan da.

Lurralde historikoaren arabera, urte arteko hazkuntza, sarreretan, 2022ko abenduan, % 60,0koa izan da Gipuzkoan (6.538 sarrera), % 52,1koa Bizkaian (3.300 sarrera) eta % 51,1koa Araban (3.256). Ostatu-gauetan, portaera bestelakoa izan da; % 27,1 egin dute gora Araban eta % 10,2 Bizkaian. Gipuzkoan, berriz, % 1,9 egin dute behera.

Euskal AEko batez besteko egonaldia, mota horretako establezimenduetan, 2,16 egunekoa izan da abenduan, 2021eko hil berean izan zen batez besteko 3,14 eguneko egonaldia baino laburragoa.

Plazen eta gelen okupazio-mailek urte arteko hazkuntza izan dute: ehuneko 1,7 eta 2,4 puntu, hurrenez hurren; plazen arabera % 22,1 eta gelen arabera % 26,2.

Apartamentu turistikoei dagokienez, **2022ko abenduan**, sarrerek eta ostatu-gauak honako balio hauek izan dituzte: 10.717 eta 45.395, hurrenez hurren. Aurreko abenduarekin alderatuta, sarreren gorakada % 39,5koa izan da eta ostatu-gauena, % 29,0koa.

Sarrerak, gualdiak, batez besteko egonaldia eta okupazio graduak Euskal AEko apartamentu turistikoetan. Abendua 2022

	Sarrerak		Gualdiak		Batez-besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)			
							plazen arabera		apartamentuak	
	2022/12	m/m-12 (%)	2022/12	m/m-12 (%)	2022/12	2021/12	2022/12	p.p. *	2022/12	p.p. *
EUSKAL AE	10.717	39,5	45.395	29,0	4,24	4,58	33,0	2,0	59,2	-2,2
Estatukoak	8.602	42,6	33.504	30,3	3,89	4,26	-	-	-	-
Atzeritarrak	2.114	28,3	11.891	25,4	5,62	5,76	-	-	-	-
Araba/Álava	1.135	22,4	7.441	-11,4	6,56	9,06	22,6	-3,9	58,3	-11,3
Estatukoak	1.076	26,0	5.569	-13,5	5,18	7,54	-	-	-	-
Atzeritarrak	59	-19,3	1.872	-4,5	31,00	26,78	-	-	-	-
Bizkaia	7.383	44,4	18.940	65,9	2,57	2,23	33,2	6,4	41,8	1,7
Estatukoak	5.935	48,6	14.837	75,7	2,50	2,11	-	-	-	-
Atzeritarrak	1.448	29,5	4.103	38,1	2,83	2,66	-	-	-	-
Gipuzkoa	2.198	33,9	19.014	23,5	8,65	9,38	40,1	0,6	75,7	4,6
Estatukoak	1.591	34,3	13.099	20,9	8,23	9,15	-	-	-	-
Atzeritarrak	607	33,0	5.916	29,9	9,74	9,97	-	-	-	-

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajezko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabeteaz zehar 12 urteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2023ko Urtarrilaren 24a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Bisitari atzeritarren kopurua Euskal AEko apartamentu turistikoetako sarrera eta ostatu-gauen % 19,7 eta % 26,2 izan dira, hurrenez hurren; urte artean, % 28,3ko eta % 25,4ko igoerak izan dira, hurrenez hurren.

Batez besteko egonaldia 4,24 egunekoa izan da 2022ko abenduan, 2021eko abendukoa baino baxuagoa (4,58 egun).

Lurralde historikoei dagokienez, batez besteko egonaldia, 2022ko abenduan, 2,57 egunekoa izan da Bizkaian, 6,56 egunekoa Araban eta 8,65 egunekoa Gipuzkoan.

Euskal AE mailan, plazen arabera okupazio-maila % 33,0koa izan da, eta % 59,2koa, apartamentuen arabera neurtuz gero. Horrek esan nahi du lehenengoan ehuneko 2,0 puntuko igoera izan dela eta 2,2 puntuko jaitsiera, bigarren adierazlean.

Informazio-oharra

Landetxeen ETHaren erantzun-tasa % **69,9**koa izan da, eta apartamentu turistikoena, % **77,0**koa, 2022ko abenduan.

Eustatek eskerrak ematen dizkie inkesta honetan parte hartu duten establezimendu guztiei.

Argibide gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prentsa Zerbitzua: Tel.: 945 01 75 62